Jornada
Danzad vivientes
Dantzan Biziki Jardunaldia

azaroak
17
noviembre



Teatro / Antzoki
Jesús Ibáñez de Matauco

Hibridalab / Hibridalaben
Vitoria-Gasteiz

Teatro Jesús Ibáñez de Matauco Antzoki

9:45 - 10:00

))) Bienvenida y presentación general de la jornada

Con la directora general del Instituto Nacional de las Artes Escénicas y de la Música (INAEM), **Paz Santa Cecilia** y la presidenta de la Red Española de Teatros, **Marta Monfort.**

Ongietorria eta jardunaldiaren aurkezpen orokorra)))

Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionaleko (INAEM) zuzendari nagusi **Paz Santa Cecilia** eta Espainiako Antzokien Sareko lehendakaria **Marta Monfort**.

10:00 - 11:20

))) Presentación del modelo dād: dimensiones ampliadas de la danza

Intervienen el bailarín, coreógrafo y pedagogo **Martín Padrón**, director del Centro Coreográfico de La Gomera; la consultora de marca y tendencias **Rosa Muñoz** y la gestora y productora cultural especializada en danza, **Jemima Cano**.



dād ereduaren aurkezpena: dantzaren dimentsio zabalduak)))

Martín Padrón dantzari, koreografo eta pedagogoak, La Gomerako Koreografia Zentroko zuzendariak; **Rosa Muñoz** marka eta joeren aholkulariak; eta **Jemima Cano** dantzan espezializatutako kultur kudeatzaile eta ekoizleak hartuko dute parte.

11:20 - 11:50

))) Preguntas del público

Moderan **Jemima Cano** y la coordinadora de artes en vivo de la Oficina de Difusión de la Danza (ODD) del INAEM, **Carmen Pico**.

Publikoaren galderak)))

Moderatzaileak, **Jemima Cano** eta INAEMeko Dantzaren Hedapenerako Bulegoko (ODD) arte bizien koordinatzailea, **Carmen Pico.**

11:50 - 12:10

))) Concierto y danza

Con la bailarina y coreógrafa **Garazi López de Armentia**, cofundadora del colectivo Parasite Kolektiboa y de la Sala Baratza Aretoa y el músico **Víctor Mesanza**.

Kontzertua eta dantza)))

Garazi López de Armentia dantzari eta koreografoarekin, Parasite Kolektiboa eta Baratza Aretoa espazioaren sortzaileetako batekin, eta **Víctor Mesanza** musikariarekin.

12:20 - 13:40

))) Mesa redonda: la escuela, la oficina, el ambulatorio, la plaza... claman danza

Con el coreógrafe, tarotista, poeta e investigadore del movimiento **Adur Ballarín**, la compañía Proyecto Larrua (**Aritz López** y **Jordi Vilaseca**), la cooperativa social de educación artística y mediación cultural **Artaziak**; la actriz, dramaturga, pedagoga y creadora escénica **Olfa Sedesni**, la enfermera **Ainhoa Picaza** y la experta en Danza Movimiento Terapeuta y en Educación en Ciencia del Dolor **Clara Lliró**.

12:20 - 13:40

Eskolak, bulegoak, anbulatorioak, plazak... dantza eske ari dira)))

Adur Ballarín koreografo, tarotista, poeta eta mugimenduaren ikertzailearekin; Proyecto Larrua dantza konpainiarekin (**Aritz López** eta **Jordi Vilaseca**); arte-hezkuntzan eta kultur bitartekaritzan diharduen Artaziak kooperatiba sozialarekin; **Olfa Sedesni** aktore, dramaturgo, pedagogo eta eszena-sortzailearekin; **Ainhoa Picaza** erizainarekin; eta **Clara Lliró** dantza-mugimenduaren bidezko terapeuta eta minaren arloan adituarekin.

13:40 - 14:15

))) Preguntas del público

Moderan la coreógrafa y trabajadora cultural **Idoia Zabaleta Morán** junto a **Carmen Pico** (ODD).

Publikoaren galderak)))

Idoia Zabaleta Morán koreografo eta kultur lanlgileak eta **Carmen Pico** (ODD) gidatuko dute solasaldia.



Hibridalab / Hibridalaben

))) Sesión de diseño colectivo: por fin una unidad dād en Gasteiz (2032)

Dirigido por **Idoia Zabaleta Morán** y la intérprete, dramaturga y directora **Hannah Frances Whelan**. **Plazas limitadas. Necesaria inscripción previa en el correo: azala@azala.eus.*

16:00 - 19:00

Etorkizun posibleen makina: azkenean, DĀD unitate bat Gasteizen (2032))))

Idoia Zabaleta Morán eta **Hannah Frances Whelan** dramaturgoak gidatuta. **Plaza mugatuak. Aldez aurretik izena eman behar da helbide honetan: azala@azala.eus.*

19:00 - 19:20

))) Cierre y valoración colectiva de la jornada *Danzad vivientes*

Dantzan Biziki jardunaldiaren amaiera eta balorazioa)))

19:20 - 20:00

))) Y si creamos un mundo que sea cierto porque si no lo es no sé cómo te voy a amar cuando mueras y otras formas de volverse río y terminar una vida

Con **Adur Ballarín** y **Unai Urkola Etxabe** (artista sonoro).

Eta egiazkoa izango den mundu bat sortzen badugu, bestela ez baitakit nola maitatuko zaitudan hiltzen zarenean, eta ibai bilakatzeko eta bizitza bat amaitzeko beste modu batzuk)))

Adur Ballarín eta **Unai Urkola Etxabe** soinu-artistarekin.

Allí donde la danza hace vida

¿Qué pasaría si la **danza** dejara de ser pensada únicamente como una programación cultural y empezara a ser tratada como una infraestructura sensible para la vida en común? ¿Y si **un cuerpo que baila** pudiera intervenir también en una escuela, un centro de salud, un barrio, un archivo, una residencia de mayores, un servicio de juventud, una plaza, una oficina de urbanismo o un proceso de integración social?

La danza es una **tecnología blanda**, necesaria para como sociedad pensar con el cuerpo, leer un territorio, activar vínculos, ensayar formas de presencia, acompañar procesos educativos, comunitarios, sanitarios, sociales y urbanos. Desde esta intuición radical, la jornada ***DANZAD VIVIENTES***, allí donde la danza hace vida, presenta por primera vez en Vitoria-Gasteiz, el **Modelo DĀD —Dimensiones Ampliadas de la Danza—**, desarrollado por el Centro Coreográfico de La Gomera. La presentación del Modelo DĀD a cargo de Martín Padrón, director del Centro coreográfico de La Gomera, y Rosa Muñoz, responsable de la marca, abrirá un espacio de pensamiento lúdico con agentes de la ciudad vinculados a la educación, la salud, la juventud, la integración social, el patrimonio, el urbanismo y otros campos, con el deseo de imaginar cómo las unidades DĀD podrían implementarse en distintos territorios, como en la propia ciudad de Gasteiz, sin ir más lejos. No se trata de llevar la danza a otros lugares como quien decora una política pública, sino de reconocer que tal vez esos lugares —la escuela, el ambulatorio, el barrio, el archivo, la calle— ya están pidiendo otras formas de movimiento, escucha, imaginación y relación.

La jornada será intensa o no será. ¿Acabaremos bailando?

Dantzak bizitza sortzen duen lekuan

Zer gertatuko litzateke dantza kultur programazio huts gisa ulertzeari utzi eta elkarrekin bizitzeko azpiegitura sentikor gisa hartzen hasiko bagina? Eta **dantzan ari den gorputz** batek esku hartu ahal izango balu eskola batean, osasun-zentro batean, auzo batean, artxibo batean, adinekoen egoitza batean, gazteria-zerbitzu batean, plaza batean, hirigintza-bulego batean edota gizarteratze-prozesu batean?

Dantza **teknologia samurra** da, beharrezkoa gorputzarekin pentsatzeko, lurralde bat irakurtzeko, loturak pizteko, egoteko moduak entseatzeko eta hezkuntzako, komunitateko, osasuneko, gizarteko zein hirigintzako prozesuak laguntzeko.

Uste sakon eta ausart horretatik abiatuta, ***DANTZAN BIZIKI***, dantzak bizitza sortzen duen lekuan jardunaldiak **DĀD eredua —Dantzaren Dimentsio Zabalduak—** aurkeztuko du lehen aldiz Gasteizen la Gomerako Koreografia Zentroak garatu du eredua.

Martín Padrón, La Gomerako Koreografia Zentroko zuzendariak, eta Rosa Muñoz, DĀD markaren arduradunak, eredua aurkeztuko dute. Hortik abiatuta, hiriko hainbat eragilerekin jolaserako eta pentsamendurako tarte bat zabalduko da: hezkuntzan, osasunean, gazterian, gizarteratzean, ondarean, hirigintzan eta beste hainbat arlotan lanean ari diren pertsonekin. Helburua DĀD unitateak hainbat lurraldetan nola txertatu eta abian jarri irudikatzea da; Gasteizen bertan, urrutira joan gabe.

Kontua ez da dantza beste leku batzuetara eramatea, politika publikoak apaintzera eramango bagenu bezala. Kontua da aitortzea, agian, leku horiek —eskolak, anbulatorioak, auzoak, artxiboak, kaleak— mugitzeko, entzuteko, irudikatzeko eta harremanak egiteko beste modu batzuk eskatzen ari zaizkigula dagoeneko.

Jardunaldia bizia izango da, edo ez da izango. Dantzan bukatuko ote dugu?

Organiza / Antolatzaileak:

Gobierno de España · Ministerio de Cultura · inaem Instituto Nacional de las Artes Escénicas y de la Música · Oficina de Difusión de la Danza

Colaboran / Elkarlanean aritzen dira:

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz · Vitoria-Gasteizko Udala · Antzoki sarea Red de teatros Vitoria-Gasteiz · dād · hibridalab